

GUTXIENEZ 75 URTE DITUZTEN PERTSONEN ETXEBIZITZAK ERABERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

EZAUGARRIAK

- **Helburua eta xedea:** gutxienez 75 urte dituzten pertsonen etxebizitzak hobetzeko eta segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko obrak diruz laguntzea.
Zehazki, **mota honetako obrak** lagunduko dira diruz:
 - etxeetako instalazio elektrikoa berritzeko obrak
 - baineraren ordezkari dutxa jartzeko obrak
- Diru-laguntzak **segidako lehiaren erregimeneko deialdian** ateratzen dira, hau da, laguntzaren onarpen ostean eskaeraren ordena jarraitzen da, diru-kopurua bukatu arte, hau da, 15.000€.
- Eskariak aurkezteko epea: diru-laguntzen oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo **egunetik 2023ko azaroaren 30era arte**.
- **Non aurkeztu:** Eskariak leku hauetan aurkeztu ahaliko dira:
 - a) Aurrez aurre Herriarren Arreta Zerbitzuan – HAZ (Barrenkale 17 – Durango).
 - b) Durangoko Udalaren **egoitza elektronikoa**.
 - c) Administrazio publikoetako erregistro-lekuan, 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehaztutakoetan (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).
- Laguntza hauek bateragarriak **dira** beste laguntza batzuekin (Gizatek eta/edo Eusko Jaurlaritzako etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntzak), baina ezingo da inolaz ere gain-finantziatzeaz jaso.
- Eskatzaileek **I Eranskina bete** beharko dute dokumentazio guztiarekin. Diru-laguntza eskaera egin ondoren, laguntzaren onarpena jakinaraziko da.
- Obrak amaitzean, **II Eranskina** bete beharko da dokumentazio guztiarekin, lanak eta egindako gastua ziurtatzeko.
- Lanak eta egindako gastua egiaztatu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

OHARRAK ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK (DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIKO 2. ARTIKULUA)

- 75 urte edo gehiago edukitzea.
- Durangon bizitzea eta bertan erroldatuta egotea, gutxienez azken bi urteetan etenik barik, eskabidea aurkezteko den unean.
- Etxebizitzaren jabea izatea, edo gutxienez haren %50aren usufruktuduna. Gutxienez 10 urteko epean onuraduna lehen graduko ondorengoei batera bizi daiteke.
- Etxebizitza baten errentan egotea eta etxebizitza hori bere bizileku oihikoa izatea gutxienez 10 urtez. Onuraduna izatea etxebizitzako gastuen erantzulea.
- EZIN IZANGO DA onuraduna izan eskabidea egiteko unean egoitzen foru-zerbitzu publikora sartzeko eskaera egin duen inor.
- Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera haztatuak urteko 21.000 euro gordin baino gehiago inola ere ez izatea.
- Ez izatea 30.000,00 euro baino gehiagoko kapital higigarririk.
- Durangoko Udalarekiko zerga betebeharrak eguneko izan beharko ditu.

Nola tramitatu

1. Lanak hasi aurretik, diru-laguntzaren eskatzaileek, I Eranskina bete eta eskatzen den dokumentazio guztia gehitu behar dute.
2. Eskaera ostean, diru-laguntzaren onarpena egingo da.
3. Behin lanak eginda, II Eranskina entregatu behar da dokumentazio guztiarekin, obrak eta gastua egin direla ziurtatzeko.
4. Lanak eta egindako gastua egiaztatu ondoren, laguntzaren ordainketa egingo da.

OBRAK EGIN AURRETIK AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA beteta eta sinatuta (I ERANSKINA)

AITORPENAK
Diru-sarrera hauek ditudala: - Zergapetutako diru-sarrerak - Pentsio ez kontributiboak - Beste modutako diru-sarrerak
Etxebizitzaren titularra, jabea, edo gutxienez haren % 50aren usufruktuduna naizela.
Etxebizitzan errentan nagoela gutxienez 10 urtez.
Eraberritzeko lanak egiteagatik Udalaren obra-lizentzia eskatu eta jaso dudala.
Durangoko Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenak ordainduta ditudala.
EZ zaidala diru-laguntzarik eman kontzeptu beragatik. Beste laguntzaren baten onuraduna bada, haren egiaztagiria ekarriko du.
Ez dudala eskaerarik egin egoitzetako sare publiko ezta pribatura iristeko.
Baimena ematen diot Durangoko Udalari erakunde eskudunei behar besteko dokumentazioa eskatzeko, diru laguntza honen baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeke eta, hala badagokio, eguneratzeko.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa pdf formatuan
Onuradunen NAN kopia
Bizikidetza unitatearearen Foru-ogasuneko ONDASUNAK ETA ERRENTA ziurtagiria (03 EREDUA). Gizarte Segurantzako diru-sarreraren ziurtagiria, prestazio ez kontributiboak direnean.
Higiezinaren jabearen baimena obrak egiteko, eskatzailea errentan dagoenean

OBRAK EGIN OSTEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

OBREN AMAIERA EGIAZTATZEKO ESKAERA beteta eta sinatuta (II ERANSKINA)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa pdf formatuan
I. motako obretan: Instalazio elektrikoa berritzea
Berritutako instalazio elektrikoaren fakturak, partiden arabera zehaztuta eta aleko prezioarekin.
Behe Tentsioko Instalazio Elektrikoaren ziurtagiria (buletina), Industriako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala zigilatuta.
II. motako obretan: Baineraren ordezkari dutxa jartzea
Baineraren ordezkari dutxa jartzeko egin beharreko igeltserotza- eta iturgintza-lanen faktura, partidetan zehaztuta eta aleko prezioarekin.

Eskariak aurkezteko epea hasiko da diru-laguntzen oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2023ko azaroaren 30ean bukatuko da.